

L A N G I L L E G A Y A

<p>—Mutill, aunditu aiz ta biardek askatu pentsaturikan zetan aurrera sayatu. ¿Zer ofiziyotako daukak ik gogua?</p>		<p>tira, ¿zer nai dek izan? —Nik... igeltserua. —Bañan mutill, ¿ez dakik arkitzen dirala askotan lanik gabe? —Orrengatik bada.</p>
---	--	--

O G I Y A R E N L A G U N T Z A

<p>—Osorik arkumia jan dek?</p>		<p>—Bat beñepiñ. —¡Mutill! ¿ta nola jan dek? —¿Jan? Ogiyarekiñ.</p>
-------------------------------------	--	---

MARZELINO SOROA.

* * *

CHOMIÑ MOSKORTI

<p>Bein baten sartu nintzan Barnetzeko bentan Eta topatu neban Chomiñ Ordi bertan; Moskorti izengaña Chomiñ orrek eukan Jaiakeran artuta Erriojako pontan. Chomiñ Ordi entzunaz</p>		<p>Au, ikaratu zan: —Sekula ezbanaz iñoz Erriojan ni izan ¿Zelan batiatu naz Erriojako eleisan? —¡A Chomiñ! ¿zer diñozu? ¿Zoratuta zagoz? ¡Zure paper guztiyak Erriojan dagoz!</p>
---	--	--

BONIFAZIO LACHA ETA AGUIRRE.

Ubidean, 1896-ko Uztan.

